

## IKASKIDE TALDEAK - III. MINTEGIA

### IRAKASLEAREN ESKU-HARTZEA

#### ONDORIOAK

Izandako esku-hartze egoera zailetatik horietatik zuen burua egoerarik kritikoenean jarri zaituztetena aukeratu eta deskribatu. Talde handian ateratako egoerak.

- 1. Egoera: zerikusia dauka erritmo kontuekin; gela taldeka jarri, lan bat eman; batzuk oso azkar bukatu (arinegi egin dutenaren sentsazioa) eta beste batzuk lanean jarraitzen dute. Giro desegokia/nahasia sortzen da (presioa batzuk besteei?). Ez dakit noiz eta nola esku-hartu. Amorrazioa sentitzen dut; azkar bukatu dutenek arinegi ari direnaren sentsazioa baina noiz esku-hartu asmatu ez.
- 2. Egoera: Ikerketan ari direnean, blokeoak edota okerrak ikusten direnean taldeetan, antsietate sentsazioa; denbora falta, iritsi ezinak, dinamika zuzenean apurtu (irtenbideak irakasleak eman)
- 3. Egoera: talde bat ikusten duzunean lanean ari ez dela, despistatuta, beste betebeharrak batzuetan... Noiz sartu? Noiz esan, baina... zertan ari zarete? Jakin ez noiz esku-hartu; arinegi ari direnaren sentsazioa ere. Batzuetan gehiegi sartzen naiz, beste batzuetan libreegi utzi... tresna falta, inpotentzia eta kezka sentsazioa.
- 4. Egoera: Lan bat aurkezteko epe-muga jakin bat edukita, egunero egindako lanaren jarraipena egiteko asmoa, epe hori errespetatua izan dadin. Egunero, egindako lanaren gainean balorazioa egiten zen bai irakasleak zein ikasleek; baina askotan ez zetozen bat. Hor zalantza sortzen da: noiz ari den nor zintzoki (ikasleen erantzunak zentzudunak dira baina egia ote?) Sentsazioa: zalantza.
- 5. Egoera: Talde batean lanean bi lider sortu eta euren arteko talkak sortzen direnean (adostasun falta...); adostasunez hartutako erabakietan galtzaile den liderrak gainontzekoen lana oztokatzen du; taldetik desbinkulatzen da... izaerak daukan garrantziaz konturatu... inpotenziaren sentsazioa.
- 6. Egoera: ikasle baten aurreikuspenak ez ziren bete (lana aurkituko zuela berehala...), ikaslea etsita sentitzen zen, denbora galtzen ari zenaren sentsazioa... Inpotenziaren sentsazioa.
- 7. Egoera: gaia ez kontrolatzea (ez materia bera, ezta talde kooperatiboen dinamika ere). Sentsazioa: antsietatea, urduritasuna, kezka.
- 8. Egoera: bide latza, ez soilik ikasleekin, lankideekin ere; komunikaziorako zailtasunak; horma bate kontra joko bazenu bezala. Kezkarik handiena, ez identifikatzea ikasleen espektatibak, helburuak.... Sentsazioa: kezka.
- 9. Egoera: urduri jartzen nau erantzukizun faltak, ardura batzuk esleitu eta bakarren batek betetzen ez dituenean, erritmoa apurtu, dinamika moteldu, gatazka... askotan gertatzen den kontua da; aurrera ezin jarraitu... paperak galtzen ditut, haserretu, errieta eman eta, gero atzera egin behar... sentsazioa, haserrea.
- 10. Egoera: proiektuetan, lan luzeetan egoera gatazkatsua sumatu, giro txarra taldeetan; ikasleek arazoa ezkutatu egiten dute; taldea apurtuta dago; nola azaleratu hori? Zer egin? Nola esku-hartu? Sentsazioa: noraeza eta frustrazioa
- 11. Egoera: norbaitek gehiegizko ardurak hartzen dituenak, taldeko lan-eza ezkutatzearagatik. Ez da ikusten zenbateraino den batek ez dakiela delegatzen, zenbateraino batzuen utzikeria. Zer egin hor? Nola esku hartu? Nola detektatu hori? Zalantza sentsazioa.


### Egoera guztien artean bat aukeratu (gehienak identifikatuta senti daitezkeena) –De Bonoren txapelak-

- Talde batean zer gertatzen ari den ez jakitea. Talde horietan zera ari den gertatzen identifikatzeko zailtasunak.
- Ardura betetzen ez dutenean, edota beteta ere, aseta geratzen ez zarenean, zer? Erantzukizun eza. Nola, noiz...? Askotan kanpotik ikusten da hori, alegia, jakin badakigu, baina jakinda ere, zer demontre egin daiteke hor?

### Arazoa ahalik eta gehien zehaztu (taldeka ala banaka ari direnean? ...)

- Desoreka, erantzukizun edota betebeharreko. Taldean ikusten dugu.

Zeintzuk izan daitezke arazo horren kausak? Post-itak erabiliko ditugu. Post-it bakoitzean ideia bana idatzi. Isikawaren arrain-hezurra.



#### • KAUSEN SAILKAPENA:

- **Diseinuari dagozkion kausak:**
  - Zeharkako kompetentziak garatzeko tresna falta
  - Definizio falta (helburuak, metodologia...)
  - Zailtasun maila, denboralizazioa... ondo neurtu gabe
  - Jardueren diseinua: orokorregia, lan banaketa oztopatzen du, orlak eta zereginak ez dira banatzen
  - Planifikatutako prozesua luzea izatea eta arazoa bukaerara arte ez antzematea
- **Denborari dagozkionak:**
  - Beti dago denbora gutxi, ia denetarako.
- **Irakasleon estrategiei dagozkionak:**
  - Uniformitatea, homogeneitatea bilatu nahia (existitzen ez denean)
  - Modelajearekin arazoak, irakasleok euren taldekide kide ez garelako; kanpoan geratzen gara.
  - Ikasleek planifikatzen dakitela pentsatzea (aurre iritzi zenbait)
  - Lan kooperatiboaren beraren definizio falta (zer egin behar den, nola...)
  - Ikasleek ez dituzte helburuak ondo ulertu eta guk ez diegu horrela izan ote den galdetu.
  - Sor daitezkeen hainbat arazo aurreikusi ez, ezta horiek ekar ditzaketen ondorioak ere.
  - Ez dugu jakin-mina / interesa pizten jakin izan.
  - Ez dugu betebeharra ondo azaldu

- Produktua soilik ebaluatzeko joera
- **Talde harremani dagozkionak:**
  - Lankidetzaren desegokia harreman txarrak tarteko
  - Taldekideen arteko lotura, lankidetzaren ezagutza... falta
  - Elkarrekiko afektiboki urruti sentitzea
  - Norbere buruaren ezagutza falta
  - Delegatzeko/konpartitzeko gaitasun eza
  - Ustezko gaitasunen desoreka
  - Aldez aurreko rolak – kideen hautemateak
  - Ikasle bat (edo gehiago) ez du bere burua ikusten taldeko partaide gisa.
- **Ebaluazioa – kalifikazioari dagozkionak:**
  - Notaren nahia edota beharra
  - Produktua soilik ebaluatzea; honen ondorioz, talde lanaren ebaluazioak oso eragin gutxi dauka azken kalifikazioan (eta hori ikasleek badakite).
  - Taldekide guztiek nota bera jasoko dutenaren ideia
  - Erantzukizuna neurtzeko tresna falta.
  - Norbaitek (beste kideren batek, irakasleak berak...) lana aurrera aterako duenarekiko ziurtasuna
- **Ikasleen motibazioari dagozkionak:**
  - Erantzukizun maila
  - Gaiarekiko interesa
  - Kalifikazio altua behar, unibertsitateari begira
  - Eskaintako proiektua ez da motibagarria ikasleentzat (gaia ez dute eurek hautatu...)
  - Ikasleak bere lana eta ekarpenak ez ditu beharrezkoak ikusten (beste ikasleren batek edo irakasleak egingo du berak egiten ez duena).
  - Kideen izaerarekin lotutako motibazio eza
  - Materia bera gustuko ez izatea edota gaiarekiko interes maila desberdinak egotea.
- **Kanpo eragileei dagozkionak:**
  - Energia falta, nekea
  - Aldez aurretik izandako eskarmentu gutxiarengatik ohitura falta. Talde lana klaseko ohiko lanetatik oso aparte dago.
  - Auto-exigentzia maila baxua. Ez dago modan.
  - Denbora
- **Ikasleen izaerari dagozkionak:**
  - Erantzukizun maila baxua
  - Aldez aurretikako “rolak” – norberaren/kideen hautemateak
  - Gaizki ulertutako lidergoa: delegatzeko/konpartitzeko gaitasun eza
  - Taldeetan bildutako kideek “zelula” dinamikoa ezin sortu izaera kontuak tarteko.

***Hau ikusita, zeintzuk dira nik ateratzen ditudan ideiak/ondorioak?***

- Arazoaren konplexutasuna
- Ikasleak etiketatzen ditugu: azkarra / motela / langilea / alferra adjektiboak eta horien konbinazioa erabiliz.
- Gure buruaren autokritikarik ez dugu egiten: beti jartzen dugu “errua” besteengan (ikaslea, taldea...).

**Zeri heldu lehenengo? Zeri ondoren? Irakasleon esku-hartzea hobetze aldera, Lehentasunak markatzeko tresna posible bat. (elkarrekin lantzeko denbora nahikorik ez)**

		▶ <b>KONTROLatzeko aukera</b>	
		ZUZENA	ZEHARKAKOA
<b>INPAKTOA/ ERAGINA</b>	HANDIA	1	2
	TXIKIA	3	4

- Arazoaren konplexutasuna kontuan hartuta, dauden aldagai desberdinak, denei ezin diegu elkarrekin heldu; lehentasunak markatu behar ditugu.
- Arazoaren aldagai bakoitzari lehentasun maila bat ala bestea esleitzeko, goiko “matriz” antzeko tresna erabili dezakegu.

**Hortik aurrera, errazenetik hasita (edo norberak egokien/beharrezkoen... ikusten duten multzotik), irtenbideak bilatzen hasi.(elkarrekin lantzeko denborarik ez).**